

Altza

Larraitz Garmendia (943-391267)

datorren astean gabonetako haur jaialdia hasiko da. Iaz bezala, aurten ere Takolo, Pirritx eta Porrotx izango ditugu gure artean. Pailazook beren azken lana jokatuko dute Auzo Etxean: "Parrandan". Antzezlanaren hilaren 28an ikusi ahal izango dugu, goizez (12.00) eta arratsaldez (18.00). Dagoeneko sarriera guztiak agortu dira, baina Altzako haurrek bestela-

ko ikuskizunik ere izango dute. Besteak beste, aipagarria da Lamiak taldeak eskainiko duen ipuin saioa. Hilaren 27an izango da, kultur etxean, goizeko 11.00etan. Hilaren 28an, aldiz, Larratxoko Haur Liburutegian ikusi ahal izango da Lamiak-en ipuin sorta polita. Bestalde, hilaren 29an, Periferia Teatro taldeak "Pinguino" lana taularatuko du, Auzo Etxean. Emanaldi hori gaztelaniaz izango da.



Aurten ere Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazook izango dira gure artean.

Gros

Irutxulo

hilaren 14an goizeko 10.30etan, Zurriola ikastolako Olentzeroren konpartsa abiatuko da.

Ikastolako hurrez eta irakasleez gain, bertako musika eskolako dultzainari eta txistulariak joango dira. Konpartsa auzoan barrena ibiliko da: Nafarroa hiribidea eta Jose Arana,

Birmingham, San Frantzisko, Aita Larroka, eta Secundino Esnaola kaleak. Ondoren, taldeak Txofre enparantzara joko du. Ez da hau izango, ordea, datozen egunetan egingo den iharduera bakarra. Hilaren 26, 28 eta 29an, goizeko 11.00etatik aurrera "Gabonetako haur astea" antolatu baita. Hori dela eta, hainbat tailer egitekoak dira bertan: gabonetako posta-

lak, txotxongiloak, ponpoiak, malabarrak eta abar.

Denda Marruman

Hilaren 22, 23, 24 eta 31n, gabon denda ipiniko da auzoko Marruma elkartearen. Bertan gauza ugari egongo da salgai: pitxiak, arropa eta postalak, besteak beste.

Olentzero protagonista

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA - ZILARTEGIA



Aliaga

BEREZO DISEINUA

AHAZTU EZINEZKO FESTAK
BETI GOGORATUKO DUZUN OPARIA

Secundino Esnaola, 12 - Tel.: 27 90 39

